

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2016ko Sanferminetan gertatutako gertaeren gainean emandako epaiaren aurka errekurtsioa aurkeztuko du Nafarroako Gobernuak

Maria Solana bozeramaileak adierazi du Foru Exekutiboak "ezin duela epaia partekatu", eta biktimarekiko elkartasuna adierazi du

Asteazkena, 2018.eko abenduak 5

Nafarroako Gobernuko bozeramaile Maria Solanak, 2016ko Sanferminetan gertatutako gertaeren gainean NJANk emandako epaia ezagutu ondoren, Foru Exekutiboak egindako balorazioa jakinarazi du.

"Erabakiari errespetua adierazi arren, Nafarroako gobernuak ezin du konpartitu beste behin epaia, non esaten den gertaturikoa sexu-abusua izan zela, jakinik gainera bi magistraturen botu partikularra duela epaiak, gertaturikoa sexu-erasotzat jotzen dutenak, hasieratik adierazi izan dugun bezala. Era berean, botu partikularrekin bat egiten dugu, mugikorra lapurtzeko delitua egon izanak beldurraztea inplikatzeko baitu.

Bestalde, sententziak aintzat hartzen du baldintza-prozesala betetzen dela

Intimitatearen kontrako delitua dagoen ala ez epaitzeko.

Nafarroako gobernuaren Zerbitzu Juridikoak epaia aztertzen ari dira, baina aurrera genezake Nafarroako gobernuak kontrako errekurtsioa jarriko duela ezarritako 5 eguneko epean.

Lehenengo irakurketa batean epaiak berretsi egin du Nafarroako Auzitegiak egin zuen frogatutako gertaeren balorazio eta errelatoa. Horren aurrean beti esan izan dugu sexu eraso delitu gisa epaitu beharra zegoela, Nafarroako Gobernuaren errekurtsioan aipatzen diren postulatuekin lerratzen diren bi magistratuetako baten botu partikularrak berak jasotzen duen moduan, zeinek onartzen duen 14 urte, 3 hilabete eta egun bateko espetxe-zigorra ezarri behar zitzaizela. Baita 2 urte espetxe-zigorra beldurra eragiteko lapurreta delituagatik, eta ez ebasketagatik.

Gainera, epaiak mespetxatu egiten ditu defentsaren argumentuak.

Era berean, 5 magistratuek ulertu egiten dute intimitatearen kontrako delitu gisa ere epaitu beharra zegoela eta horrela behar duela izan balioztatzen dute, Epategira itzularaziz jarduera, eta horrek zigorrak gehitzea ekar lezake.

Sexu-indarkeria haurren eta emakumeen Giza Eskubideen urraketa onartezina da, bigarrenez biktimizatzen gaituen indarkeria da eta gure bizitzaren eta askatasunaren kontrako eraso da.

Gure gaitzespen irmoa berretsi nahi dugu sexu-indarkeria adierazpen guztien aurrean. Bortxatutako eta eraildako emakumeak dauden bitartean, ez dugu gizarte patriarkala desmuntatzeko gure ahaleginean amore emango.

Asko dago oraindik egiteko. Emakumeen kontrako indarkeria egoera bat gehiago egon ez dadin lortzeko, jakinda emakumeen eta gizonen desberdintasun egoeratik eratortzen direla erasoak. Berdintasun politikak sustatzen segituko dugu, prebentzio eta erradikazio nerri eraginkorrenak direlako. Eta, era berean, babes neurri integralak eta baliabideak martxan jartzen segituko dugu euren bizitzaren kontrako indarkeria jasaten duten emakumeak artatzeko, euren askatsunaren, duintasunaren eta herritartasun osoaren kontrako erasoari erantzuteko.

Biktima eta bere familia eta lagunentzat hain zailak diren une hauetan gure babes eta elkartasun osoa adierazi nahi diegu.

Azaroaren 25ean abiarazitako kanpaina berreskuratuko dugu, zeinak minaren erreparazioan jartzen zuen fokua, oinarrizkoa dela uste baitugu, horregatik berriro diogu: asko baitugu egiteko, lehenengo pertsona pluralean, erakunde guztiei dagokigulako, persona guztiei, gizarte osoari".